



Arartekoaren 2024R-3480-23 Ebazpena, 2024ko apirilaren 9koa, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari gomendatzen diona indarrrik gabe utz ditzala Lucha de Clases elkarteari ezarritako zehapenak eta kobratutakoa itzul dezala, jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisuak ez bidaltzeagatik sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzetan.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen Lucha de Clases irabazi-asmorik gabeko elkartearen (aurrerantzean, elkartea) ordezkariaren kexa, administrazio-jarduketan ondorioetarako. Izan ere, ez zegoen ados Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezarritako zehapenekin, kexagilearen ustez ez baitzuten bete pertsona juridikoei jakinarazpenak egiteko baldintzak.

Zehazki, kexagileak Arartekoari azaldu zion irabazi-asmorik gabeko elkarte horren borondatezko ordezkaria dela, eta administrazio publikoetako izapideak kudeatzen dituela.

Kexagileak azaldu zuen, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak derrigorrezkotzat jo zuela bitarteko telematikoen bidezko harremana pertsona juridikoentzat, eta zenbait izapide administrazio horren egoitza elektronikoaren bidez egin behar izan zituela.

Horrela, foru-administrazioan elkartearen ordezkari gisa izapideak egiteko ahalordetzea aurkeztu zuen. Ahalordetze hori 2021eko apirilaren 19an gordailutu eta erregistratu zen aldundian. Gainera, harremanetarako datuak (bai telefono mugikorraren zenbakia, bai posta elektronikoa) berrikusi zituen administrazioaren egoitza elektronikoan, jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisuak jasotzeko. Datu horiek administrazioaren esku zeuden lehendik.

Hala ere, kexagileak adierazi du ordezkariaren egiaztatu zuenetik ez zuela inolako abisurik jaso jakinarazpenak eskura jartzeko harremanetarako bitarteko horietan, ordezkariaren duen elkartearen ordainketa-errekerimenduei eta zehapenei dagokienez.

Ondorioz, 2021ean ez zuen aurkeztu elkarteari eskatu omen zioten zenbait zerga-dokumentu, ez zekiela administrazioak errekerimenduak egin zizkiola elkarteari, harik eta bankuaren jakinarazpen bat jaso zuen arte. Jakinarazpen horretan, Foru Ogasunak enbargatutako zenbateko baten berri eman zioten. Enbargo hori





administrazioak jarritako zehapenen ondoriozkoa zen, eskatutako dokumentazioa epe barruan ez aurkezteagatik.

Era berean, kexagileak Arartekoari azaldu zion ez zuela jaso dokumentuak aurkezteko epea ez betetzeagatik zehapen-ebazpenak eskura jartzeko abisurik (2023/1156 eta 2022/3993 zehapen-prozeduren erreferentziak).

Egoera horren aurrean, kexagileak kexa aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoro korrraren bidez, 2023ko uztailaren 15ean. Kexa horretan, kexagileak gertatutakoak azaldu zituen, eta ezarritako zehapenak baliogabetzeko eskatu zuen, jakinarazpenak eskura jartzeko abisurik bidali ez zelako.

Kexagileak azaldu duenez, Administrazioak ez zuen kexa onartu 2023ko azaroaren 14an, alegazioak epez kanpokoak zirela iritzita, eta ezarritako zehapenei eustea erabaki zuen.

Zehazki, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Sozietateen, Atxikipenen eta Ez-egoiliarren gaineko Zergen Ataleko burutzaren alegazioei emandako erantzunak honako hau jakinarazi zion kexagileari:

“Con fecha 26 de febrero de 2020 se le notificó en el domicilio sito en la calle XXX, X-Xº de Vitoria-Gasteiz, por usted designado a efectos de notificaciones, una comunicación en la que se le informaba que ya no recibiría, a partir del 1 de junio, las comunicaciones y notificaciones relacionadas con la aplicación de los tributos o los procedimientos tributarios, mediante correo postal en papel, sino que las mismas serían puestas a su disposición en el apartado “Mis notificaciones” de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Álava y se indicaba la forma de solicitar que le llegara un aviso a un correo electrónico de la puesta a su disposición de nuevas notificaciones. El mismo día se le notificó esta misma comunicación al que era su representante voluntario con nivel de representación 4c.

La notificación del requerimiento para la presentación del modelo 115A se puso a su disposición en la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava el día 3 de febrero de 2022, y la del requerimiento para la presentación del modelo 180 el 14 de septiembre de 2022, notificaciones estas que se entienden producidas a todos los efectos legales los días 14 de febrero de 2022 y 25 de septiembre de 2022, respectivamente.

Al no haber contestado los requerimientos en los 30 días hábiles posteriores a su notificación, los días 4 de julio de 2022 y 12 de marzo de 2023 le fueron notificadas las comunicaciones del inicio de los correspondientes procedimientos sancionadores, en las que se expresaba lo siguiente:

1) Que, contra la propuesta de sanción, cabía la presentación de alegaciones durante los 15 días hábiles siguientes al de la recepción de la notificación.





2) Que, finalizado el plazo de alegaciones sin que se formularan las mismas, se entendería producida la notificación de la resolución.

3) Que contra la resolución podría interponerse recurso de reposición ante el Servicio de Tributos Directos o, alternativamente, Reclamación Económico Administrativa ante el Organismo Jurídico Administrativo de Álava, dentro del plazo de UN MES contado desde el día siguiente a la fecha en que se entiende producida la notificación de la resolución.

El escrito de alegaciones contra las sanciones tuvo entrada en el registro de la Hacienda Foral de Álava el día 15 de julio de 2023, es decir, una vez vencidos los plazos concedidos a dichos efectos.

En consecuencia, procede INADMITIR sus alegaciones, por EXTEMPORÁNEAS, y mantener las sanciones”.

2. Kexan azaldutako gertakariak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat igorri zion Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari. Horren bidez, lehenik eta behin, sailari galdetu zion zergatik ez zion bidali elkarteko ordezkariari jakinarazpenak, errekerimenduak eta zehapenak eskura jartzeko abisurik.

Administrazioak elkarteari igorritako jakinarazpenak eskura jartzeko abisuak bidali bazizkion, erakunde honek ordezkariari bidalitako abisu guztien kopia eskatu zuen.

Gainera, Sailak jakinarazpen elektronikoen plataforma eta pertsona juridikoei igorritako jakinarazpenak eskura jartzeko bidalketen plataforma abian jarri zeneko data zehatza adierazteko eskatu zuen.

Bestalde, Arartekoak administrazioari galdetu zion ahalordeen erregistro elektronikorik bazuen, eta, hala bada, zein datatik zegoen erabat operatibo.

Azkenik, Arartekoak egokitzat jo zuen aztertzea zergatik elkarteari egindako ordainketa-errekerimenduek eta zehapenek ez zuten organo eskudunaren sinadura elektronikorik.

3. Geroago, erakunde honen erregistroan sartu zen administrazioak Arartekoaren galderei erantzunez egindako txostena.

Lehenik eta behin, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arartekoari azaldu zion kexagileak helbide elektroniko bat jakinarazi zuela Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko “Nire jakinarazpenak” atalean eskura jarri izanaren abisuak jasotzeko, 2023ko maiatzaren 15ean. Beraz, egun hori baino lehen, Ogasunak ezin izan zizkion bidali jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisuak mezu elektronikoen bidez.





Gainera, txostenean gehitzen du 2023ko azaroaren 14ko jakinarazpenarekin batera bakarrik bidali zela abisu-mezu elektronikoa, kexagileak ez zuelako lehenago jakinarazi posta elektronikoko helbiderik abisua jasotzeko.

Bestalde, jakinarazpen elektronikoen plataforma eta pertsona juridikoei igorritako jakinarazpenak eskura jartzeko bidalketen plataforma abian jarri zeneko data zehatzari buruz Arartekoak egindako galderari erantzunez, sailak azaldu zuen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, COVID-19arekin lotutako zerga-neurri berriak hartzea onetsi zuenak, 1. artikuluan honako hau arautu zuela: *“Urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpen eta komunikazioen araudia ezartzen duena, 2020ko irailaren 7an jarriko da indarrean”*.

Beraz, urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez jasotzeko betebeharra ezartzen zuen pertsona jakin batzuentzat.

Ondoren, administrazioak erantzun-txostenean zehaztu zuen Arabako Foru Ogasunak borondatezko ordezkari araututa duela Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuaren bidez. Foru Dekretu horrek Arabako Foru Ogasunean zerga-alorreko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkari arautzen du, eta Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortzen du. Dekretu hori, gerora, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 13ko 6/2018 Foru Dekretuaren, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 16ko 11/2021 Foru Dekretuaren eta Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 23ko 52/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Horrenbestez, foru-administrazioak azaldu zuen Arabako Foru Ogasunaren borondatezko ordezkariaren erregistroa 2010eko abenduaren 1etik operatibo dagoela. Kexagilea, sailak azaldu zuenez, elkartearen borondatezko ordezkari gisa (IFZ: XXX) alta emanda dago 2021eko apirilaren 20tik, eta honako ordezkari-maila hauek ditu: 1-2b-2c-2d-3-4a-4b- eta 4c. Hau da, elkarte horren borondatezko ordezkari goren du.

Azkenik, Administrazioak adierazi zuen errekerimenduetan eta zehapenetan organo eskudunaren eskuzko sinadura eta identifikazioa gehitzen direla. Hala ere, foru-administrazioak zergadunei egindako errekerimendu eta zehapen guztiek “egiaztapen-kode” bat dute idazkiaren ezkerreko ertzean. Kode horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitzan sar daiteke, eta dokumentuaren egiazkotasuna egiaztatzen da.

Azkenik, sailak gaineratu zuen jakinarazpen elektronikoa dela administrazio horren jarduketak zergadunei jakinarazteko bidea.





4. Administrazioaren erantzuna ikusita, Arartekoak egokitzat jo zuen aurrez aurreko bilera bat egitea elkartearen ordezkari den kexagilearekin, arazoa administrazioaren egoitza elektronikoan sartuta ezagutzeko eta ikusteko, eta, zehazki, ordezkariaren profilerak sartuta, aldundiak izapide pertsonalak edo elkartearen ordezkari gisa izapideak egiteko sortutako atalean.

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aztertu ondoren, Arartekoak egokitzat jo du jarraian, datu pertsonalik erakutsi gabe eta pantaila-irudien bidez, antzemandako alderdi garrantzitsuenak gehitzea, ondorengo gogoetak azaltzeko erreferentzia gisa.

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Azaldutako aurrekarien arabera, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak irabazi-asmorik gabeko elkarte bat zehatu zuen, zerga-betebeharrak epe barruan ez betetzeagatik.

Kexagileak Arartekoari azaldu zion zehatutako elkartearen borondatezko ordezkaria dela, eta ez zitzaizkiola jakinarazi ez zerga-betebeharren ordainketa-errekerimenduak, ez eta administrazioak ezarritako zigorrak eta ondarearen gaineko premiamendu-prozeduran emandako administrazio-egintzak ere, ez baitzuen jakinarazpenak eskura jartzeko abisurik jaso. Horrela, zigorren berri izan zuen elkartearen banku-saldoak enbargatu zirenean.

Arazoaren testuingurua aztertuta, erakunde honek uste du arazoaren analisia pertsonetikiko hurbiltasunaren ikuspegitik egin behar dela. Hain zuzen ere, oinarrian pertsona juridikoek, hala nola elkarteak, administrazio-prozedura baten izapideak egiteko administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko duten betebeharra dago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen [14.2 artikuluan](#) ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, APEL).

Betebehar hori pertsona juridikoen ordezkariari ere aplika dakieke, hala nola kexagileari, baina ez dago zalantzarik praktikan pertsona fisikoek egiten dituztela pertsona juridikoentzat nahitaezkoak diren izapide eta jarduketa guztiak. Enpresak, elkarteak eta bestelako erakunde pribatuak ez dira administrazioekiko harremanetan egintza elektronikoak modu autonomoan egiten dituzten nortasunik gabeko erakundeak. Egiaz, eskubideak baliatzen eta betebeharrak betetzen saiatzen direnak pertsonak dira, eta, batzuetan, profesionalak ez diren herritarrak dira,





bereziki irabazi-asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan aritzen diren pertsonen kasuan.

Era berean, administrazioaren jarduna sustatzen dutenak, oro har, eskubideak eta betebeharrak dituzten pertsona fisikoak dira.

Egoera horretan, administrazio publikoak sektore publikoari aplika dakizkiokeen printzipio orokor batzuk hartu behar ditu kontuan, hala nola sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna eta zerbitzu eraginkorra, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) [3. artikuluan](#) xedatutakoaren arabera.

Arartekoaren iritziz, arauak, administrazio-ereduak eta egoitza elektronikoaren diseinuak herritarren eta bitarteko elektronikoak erabiltzen dituzten pertsona fisikoaren premien arabera eratu behar dira, eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea errazteko, pertsona juridikoei dagozkienak barne, jarraibide argiak eta garapen informatikoak emanez, administrazio-izapideak segurtasun juridiko eta tekniko osoz egin ahal izateko.

Aurrekoa azaldu ondoren, Arartekoak zenbait gogoeta egingo ditu alderdien eskubide eta betebeharrak argitzeko, ordezkartzari, jakinarazpenak egiteari eta administrazioak sortutako dokumentu elektronikoaren baliozkotasunari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera. Laburbilduz, erakundeak argitu nahi du kexagileak elkarteari pertsona juridiko gisa zegozkion zerga-betebeharrak betetzeko behar ziren jarduketak egin ote zituen, eta, bestetik, administrazioak arretaz eta administrazio-prozeduraren baldintzen arabera jokatu ote zuen.

2. Kexagilea ordezkari den elkarteak Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpen bat jaso zuen 2020ko otsailean. Honako hau zen gaia: *“Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOEN sisteman nahitaez sartzea”*.

Jakinarazpenean honako hau jakinarazi zitzaion elkarteari:

“2020ko ekainaren lehen jarriko da indarrean 5/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, batetik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz jakinarazteko prozedura eta, bestetik, komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko horien bidez jasotzera behartuta dauden pertsonak eta erakundeak (7. artikulua) arautzen dituenak.

Arau horri jarraituz, ekainaren lehen aurrera zure erakundeak ez ditu posta bidez paperean jasoko zergak edo zerga prozedurak aplikatzearekin lotutako komunikazioak eta jakinarazpenak; izan ere, eskuragai izango dituzue Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren “Nire jakinarazpenak” atalean.





Honekin batera eranskin informatibo bat dago, zeinetan kontsulta baitezakezu nola izan sarbidea jakinarazpen elektronikora, nota eskatu abisuak egiteko eskuragai jartzen direnean eta nola zehaztu kortesiazko egunak eta ordezkaritza (Informazio gehiago hemen: www.araba.eus; atala: Ogasuna-Kudeaketako zerbitzuak-Jakinarazpen elektronikoa).

Dena den, Foru Ogasun honek egiaztatu du zure erakundeak 4C mailako borondatezko ordezkaritza eman diola beste pertsona bati. Horrela bada, adierazitako araudiarekin bat etorriz, pertsona hori behartuta egongo da zure izenean zerga jakinarazpen eta komunikazio gurtiak modu elektronikoan jasotzera. (4C mailako ordezkartzaren edukia kontsultatzeko, egin klik hemen: [www.araba.eus/Ogasuna/ Kudeaketako zerbitzuak/Borondatezko Ordezkaritza](http://www.araba.eus/Ogasuna/Kudeaketako_zerbitzuak/Borondatezko_Ordezkaritza) (...)). (Arartekoak azpimarratu du).

Jakinarazpenean azaldutakotik nabarmendu behar da Aldundiak bazituela 4c mailako ordezkari baten datu pertsonalak, Aldundian edozein izapide egiteko, erakunde honi emandako erantzunean sailak berretsi zuen bezala.

Gainera, jakinarazpenak dagoeneko oso ezaguna den alderdi bati buruzko informazioa ematen zuen; izan ere, APEL 2016ko urrian indarrean jarri zenetik, pertsona juridikoen nahitaez bide elektronikoen bitartez izan behar dituzte harremanak administrazio publikoekin. Horrenbestez, Arartekoak jakin nahiko luke une horretara arte administrazioak nola egiten zizkien jakinarazpen elektronikoak pertsona juridikoei. Ondorengo gogoetetan jorratuko dugu alderdi hori.

Administrazioak ordezkari baten datuak bazituen ere, kexagilea Arabako Foru Aldundiaren bulegoetara joan zen 2021eko apirilaren 19an, administrazioaren aurrean pertsonalki agertzeko eta bere ordezkaritza egiaztatzeko.

Agertze hori erregistro elektronikoan jaso zen, kexagilearen egoitza elektronikoko gune pertsonalean, jarraian ikus daitekeen bezala:



No hay avisos sin leer.
 Cerrar Sesión ✕

ÁREA PERSONAL
 Mis datos
 Mis expedientes
 Mis avisos
Mis actuaciones
 Mis autorizados
 Mis autorizaciones
 Mis documentos
 Mis notificaciones

MIS FAVORITOS ★
 No hay Favoritos
 Configurar

Mis Actuaciones
 Introduzca los criterios de búsqueda:
 Fecha inicio: Fecha fin:
 Temas:
 Subtemas:
 Servicios:
 Tipo de Actuación:
 Sólo conexiones

Se han encontrado 344 elementos. 1 7 14 15 16 17 18

Fecha/hora	Servicio	Tipo de actuación	Usuario
21/04/2021 16:32:27	Inicio Conexión		
21/04/2021 16:31:49	Fin Conexión		
21/04/2021 10:36:54	Representación Voluntaria	Actuar en Representación Voluntaria	
21/04/2021 10:31:12	Presentación declaraciones - Individuales	Consulta de declaraciones	
21/04/2021 10:28:59	Presentación declaraciones - Individuales	Iniciar trámite	

Ordezkaritza pertsonalki agertzearen bidez egiaztatu ondoren, bi alderdi azpimarratu behar dira.

Lehenik eta behin, APELen 5. artikulua 5. atalak ordezkaritzari buruz ezartzen duena:

“5. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena duen organoak administrazio espedienteari gehitu beharko dizkio ordezkaritzaren eta une horretan aitortuak dituen ahalordeen egiaztagiriak. Ahalordetzeen erregistro elektronikoa kontsulta egin izana egiaztatzen duen dokumentu elektronikoa ondorio horietarako egiaztagiriaren izaera izango du”.

Aipatutako arauaren arabera, prozedurak izapidetzeko eskumena duten organoek ordezkaritzaren egiaztagiria erantsi behar diete dagozkien administrazio-espeditenteei. Horretarako, emandako ahalordetzeak jasotzen dituen administrazio-sistema kontsultatu behar da. Beraz, dagozkion organo eskudunaren erantzukizuna da, eta, kasu honetan, Arartekoak uste du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari zegokiola hori egitea, zerga- eta zehapen-prozeduren esparruan.

Bigarrenik, elkarrearen ordezkaria bere ahalak egiaztatzeko agertu izanaren frogarria argia egon arren eta Aldundiak lehenago ere horren berri bazuen ere, **kexagilearen egoitza elektronikoa gunean ez da ageri ordezkaritza gisa inskribatutako baimenik:**

Beraz, Arartekoak uste du administrazioan emandako eta egiaztatutako ordezkaritza, itxuraz, ez zela teknikoki gauzatu administrazioaren beraren barne-erregistroetan. Arartekoaren iritziz, baliteke inguruabar horren ondorioz Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezin antzeman izana emandako ordezkaritza, zeinak aukera emango bailioke elkarteko ordezkariari jakinarazpen elektronikoak eskura jarri izanaren abisuak igortzeko, geroago azalduko diren arau-betekizunen arabera.

Bestalde, zoritxarrez, administrazioaren erantzunean ez zen aipatu ahalordeen erregistro elektronikorik bazuen, eta, hala izanez gero, zein datatik zegoen erabat operatibo.

3. Ordezkaritzaren arloan azaldutakoaz gain, Arartekoak egokitzat jotzen du funtsezko alderdi bat azpimarratzea; izan ere, kexagileak elkartearen ordezkari gisa esleituta dituen eta esleituta zituen gaitasuna eta ahalmenak egiaztatzeko eta gai hori argitzeko aukera ematen du.

Zehazki, kexagileak, administrazioaren egoitza elektronikora sartuta, bitarteko elektronikoen bidez izapideak egin zituen, pertsona juridikoek nahitaez aurkeztu behar duten 036 errolda-eredua¹ aurkezteko.


¹ <https://egoitza.araba.eus/eu/-/modelo-036-personas-juridicas>

17/04/2022 13:45:49	Inicio Conexión		
19/10/2021 11:14:45	Modelo Censal	Enviar 036 de Modificación	
19/10/2021 11:10:28	Representación Voluntaria	Actuar en Representación Voluntaria	
19/10/2021 11:09:54	Modelo Censal	Iniciar trámite	
19/10/2021 11:09:19	Inicio Conexión		
16/10/2021 11:38:44	Representación Voluntaria	Actuar en Representación Voluntaria	
16/10/2021 11:37:55	Representación Voluntaria	Iniciar trámite	
16/10/2021 11:37:32	Inicio Conexión		
16/10/2021 11:36:48	Fin Conexión		
Se han encontrado 344 elementos. 1 7 14 15 16 17 18			
18/07/2022 10:01:31	Modelo Censal	Consulta de Modelos	
18/07/2022 10:00:33	Representación Voluntaria	Actuar en Representación Voluntaria	
Se han encontrado 344 elementos. 1 6 13 14 15 17 18			


Horren bidez, Arartekoak nabarmendu nahi du ordezkaria, pantaila-irudian agertzen diren egunetan, administrazioaren egoitza elektronikora konektatu zela, pertsona juridikoari zegozkion betebeharrak betetzeko, eta, beraz, administrazio-izapideak egiteko bitarteko elektronikoa sartzeko eta agertzeko borondatea erakutsi zuela. Horrela, egoitza elektronikoa berriz jasota geratu ziren kexagilearen ordezkari eta datu pertsonalak, berarekin harremanetan jartzeko.

4. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arartekoari azaldu zion kexagileak email bat jakinarazi zuela Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko "Nire jakinarazpenak" atalean eskura jarri izanaren abisuak jasotzeko, 2023ko maiatzaren 15ean. Beraz, egun hori baino lehen, Ogasunak ezin izan zizkion bidali jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisuak mezu elektronikoen bidez.

Hala ere, ordezkariak, zergadun gisa, sail horren abisuak jasotzen zituen SMS bidez 2020tik; hau da, **administrazioak bazeukan kexagilearen telefono-zenbakiaren datu pertsonala administrazioan ordezkari-ahalak eman aurretik.**



Hala ere, gaur egun, kexagilearen egoitza elektronikoaren atalean ez da haren ordezkaritza ageri “nire baimenak” atalean, lehen azaldu dugun bezala, eta 2020ko irailaren 1etik aurrera ez da eskura jarri izanaren abisurik agertzen, ez kexagileari pertsona fisiko gisa eginak, ez elkartearen ordezkari gisa eginak.



Gainera, Aldundiaren egoitza elektronikora sartzean, “nire datuak” atalean nahitaez bete beharreko eremu gisa agertzen dira telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.

SERVICIOS 29/02/2024 09:33

Mis Datos

🔔 No hay avisos sin leer. Cerrar Sesión x

ÁREA PERSONAL

- Mis datos
- Mis expedientes
- Mis avisos
- Mis actuaciones
- Mis autorizados
- Mis autorizaciones
- Mis documentos
- Mis notificaciones

MIS FAVORITOS ★

No hay Favoritos Configurar

Datos identificativos

DNI*

Primer Apellido*

Sexo*

Datos de contacto

País*

Provincia*

Municipio*

Localidad*

Calle*

Cod. Postal*

Escalera

Teléfono 1*

Correo electrónico*

NOTA: Los campos marcados con * son obligatorios

Guardar

Laburbilduz, Arartekoari harritu egin dio administrazioak ezin izan zizkiola ordezkariari mezu elektronikoei buruzko jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisuak bidali, izan ere:

1. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bazeukan kexagilearen telefono mugikorraren zenbakiaren berri, eta SMS mezuak bidaltzen zizkion 2020tik.
2. Kexagileak bere ordezkaritza-ahalak adierazi zituen 2021eko apirilean aurrez aurre agertuta, baina, itxuraz, ordezkaritza ez zen egoitza elektronikoko ingurune informatikoan gauzatu, eta ez ziren bere datu pertsonalak bildu edo kontrastatu eskura jartzeko abisuak jasotzeko, administrazioarekin nahitaez bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko ahalordeak eman behar zirenean.
3. Egoitza elektronikoa lehen aldiz sartzen direnetik, herritarrek nahitaezko eremuak bete behar dituzte, hala nola posta elektronikoa eta telefono mugikorra.
4. Kexagileak, elkartearen ordezkari gisa, bide elektronikoen bitartez egin zituen administrazio-izapideak 2021eko urritik, eta beraz jasota utzi zituen bere gaitasuna eta datu pertsonalak, izapidetzeko eta aurkitzeko moduan.

Arestian azaldutakoa aintzat hartuta, Arartekoak uste du administrazioak ez zuela behar bezalako arduraz jokatu, eta ez zuela arrazoizko ahaleginik egin ordezkariak administrazioak egindako jakinarazpenen berri izan zezan. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da zehapen-prozeduran eta horrek defentsarako eskubidean duen eraginean.

Hala eta guztiz ere, elkarteak bi zehapen-ebazpen jaso zituen 2022ko ekainaren 22an (2022/3993) eta 2023ko otsailaren 28an (2023/1156), pertsona juridikoak zerga-betebeharrak ez betetzeagatik. Elkarteak, ordea, ez zuen ordainketa-

errekerimenduen berri izan, ez eta hasitako zehapen-espeditenteen izapideen eta hartutako zehapen-ebazpenen berri ere, harik eta elkartearen kontu korronteko saldo erabilgarriak enbargatu zituzten arte. Hau da, sailak zehapenen ordainketa lortzeko sustatutako jarduketan berri ere ez zuen izan nahitaezko diru-bilketaren fasean.

5. Eskura jartzeko abisuei eta jakinarazpenak egiteari dagokienez, Arartekoak administrazioari eskatu zion adierazteko ea elkarteari jakinarazpenak eskura jartzeko abisuak bidali zizkion, eta, horretarako, ordezkariari bidalitako abisu guztien kopia eskatu zuen. Administrazioak, ordea, ez du abisu-saiakerarik egin izanaren inolako laginik eman.

Bestalde, erakundeak jakinarazpen elektronikoen plataforma eta jakinarazpen elektronikoa eskura jartzeko bidalketen plataforma abian jarri zeneko data zehatza zehazteko eskatu zion sailari. Erakundeari ez zaio informaziorik eman abisuak bidaltzeko eta jakinarazpen elektronikoa egiteko sistema elektronikoa abian jarri zeneko datari buruz.

Nolanahi ere, jakinarazpenak egiteari dagokionez, Arartekoak egokitzen jo du oinarritzko legeria aipatzea, APELen [41. artikuluan](#) 6. atalean honako hau ezartzen baita:

“6. Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoa edo eman duen helbide elektronikoa bakarrean. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da”. (Arartekoak azpimarratu du).

Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamenduaren² [43.1 artikulua](#) honako hau xedatzen du:

“Artículo 43. Aviso de puesta a disposición de la notificación.

1. De acuerdo con lo previsto en el artículo 41.6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, con independencia de que la notificación se realice en papel o por medios electrónicos, las Administraciones Públicas, organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes enviarán al interesado o, en su caso, a su representante, aviso informándole de la puesta a disposición de la notificación bien en la Dirección Electrónica Habilitada única,

² [203/2021 Errege Dekretua](#), martxoaren 30ekoa, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena.



bien en la sede electrónica o sede electrónica asociada de la Administración, u Organismo o Entidad o, en su caso, en ambas.

La falta de práctica de este aviso, de carácter meramente informativo, no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida.

El aviso se remitirá al dispositivo electrónico o la dirección de correo electrónico que el interesado haya comunicado voluntariamente al efecto, o a ambos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

El interesado se hace responsable, por la comunicación a la Administración, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, de que dispone de acceso al dispositivo o dirección de correo electrónico designados. En caso de que dejen de estar operativos o pierda la posibilidad de acceso, el interesado está obligado a comunicar a la Administración que no se realice el aviso en tales medios. El incumplimiento de esta obligación por parte del interesado no conllevará responsabilidad alguna para la Administración por los avisos efectuados a dichos medios no operativos.

El aviso regulado en este apartado sólo se practicará en caso de que el interesado o su representante hayan comunicado a la Administración un dispositivo electrónico o dirección de correo electrónico al efecto.

2. Cuando el interesado sea un sujeto obligado a relacionarse por medios electrónicos y la Administración emisora de la notificación no disponga de datos de contacto electrónicos para practicar el aviso de su puesta a disposición, en los procedimientos iniciados de oficio la primera notificación que efectúe la Administración, organismo o entidad se realizará en papel en la forma determinada por el artículo 42.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, advirtiendo al interesado en esa primera notificación que las sucesivas se practicarán en forma electrónica por comparecencia en la sede electrónica o sede electrónica asociada que corresponda o, en su caso, a través de la Dirección Electrónica Habilitada única según haya dispuesto para sus notificaciones la Administración, organismo o entidad respectivo, y dándole a conocer que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 41.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, puede identificar un dispositivo electrónico, una dirección de correo electrónico o ambos para el aviso de la puesta a disposición de las notificaciones electrónicas posteriores". (Arartekoak azpimarratu du).

Aipatutako arauak berariaz adierazten dute administrazioek **"abisua bidaliko dutela interesdunak eman duen gailu elektronikora edota helbide elektronikora"** eta **"abisua bidaliko diotela interesdunari edo, hala badagokio, ordezkariari, jakinarazpena egoitza elektronikoa eskura jarri dela jakinarazteko"**. Horregatik, Arartekoaren iritziz, betebeharrak ezartzen diote administrazioari, administratuaientzako berme gisa balio duena.

Gainera, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamenduaren 43. artikulua 2. atala oso argigarria da





hizpide dugun kasuari dagokionez; izan ere, **ofizioz hasitako prozeduretan, hala nola zehapenen kasuan, ezartzen da administrazioak, harremanetarako datu elektronikorik ez duenean harremanak elektronikoki izatera behartuta dagoenari eskura jartzeko bidalketa egiteko, lehen jakinarazpena paperean egingo duela.**

Kasu honetan, administrazioak argudiatu du ez zuela pertsona juridikoarekin harremanetan jartzeko daturik abisuak bidaltzeko. Hala ere, ordezkariari SMS mezuak bidaltzen zizkion 2020tik. Hala eta guztiz ere, harremanetarako daturik ez bazeukan, oinarrizko legerian xedatutakoa alde batera utzi zuen; izan ere, zehapenak 2021eko apirilaren 2aren ondorengoak dira (egun horretan jarri zen indarrean Erregelamendua), baina ez zuen paperezko jakinarazpenik bidali eta hurrengoak bitarteko elektronikoen bidez egingo zirela ohartarazi.

Alderdi hori garrantzitsua da; izan ere, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 21eko [5/2020 Foru Dekretuak](#), Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa arautzen dituenak, ez zuen eskura jartzeko abisuekin lotutako alderdirik zehaztu, eta, beraz, administrazioak APELen erregelamendu bidezko garapena errespetatu behar zuen, zeinaren edukia bermatzailea baita pertsona juridikoei jakinarazpenak egitearen arloan.

Erakunde honen iritziz, zehapen-prozedurei buruzko jakinarazpenak eskura jartzeko abisua ez bidaltzeko baldintza ez betetzeak elkartearen ordezkariaren legezko konfiantzaren printzipioa urratzen du, eta horrek defentsa-gabezia eragin zion; izan ere, ezin izan zituen administrazioak emandako egintzak ezagutu eta, hala bazegokion, ordezkatzeko duen erakundearen eskubide eta interes legitimoak defendatu.

Administrazioak bere jarduketetan konfiantza legitimo hori errespetatu behar du, aplikatu daitezkeen printzipio orokorra den aldetik, SPAJLren [3.1.e\) artikuluan](#) jasotakoarekin bat.

6. Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, Arartekoak uste du administrazioak ez zuela legezotasuna bete, ez baitzuen lehen jakinarazpena paperean bidali eta ez baitzuen arrazoizko ahalegin arduratsua egin zehapen-ebazpenak ordezkariari helarazteko abisua bidaltzeko.

Pertsona juridikoari jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisurik ez emateak eragina izan dezake haren eskubide eta interes legitimoen defentsan, eta badirudi administrazioaren jarduketa irregularra dela, administrazio onaren printzipioaren aurkakoa, arestiko ebazpen judizialean ikus daitezkeen bezala.



Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2023ko urtarrilaren 31ko 70/2023 Epaiaren³ bidez, honako hau adierazi du bigarren oinarri juridikoan abisu informatiborik ezari eta haren eraginkortasunari buruz:

“(...). Pues bien, la intrascendencia que la Administración de la Comunidad Autónoma da en el presente juicio a la irregularidad en la práctica del aviso de la notificación, ante todo, es una posición contraria al principio de buena administración e incluso a sus propias disposiciones normativas entonces vigentes.

(...)

La validez atañe a los elementos intrínsecos del acto, en tanto que la eficacia concierne a los requisitos extrínsecos o aplicabilidad, es decir, al momento en que el acto apto es susceptible de aplicación.

Como es sabido, la vocación de eficacia inmediata con la que nacen todos los actos administrativos puede aplazarse cuando el acto debe ser notificado.

La plena producción de efectos de los actos administrativos requiere por tanto el cumplimiento del presupuesto de su eficacia, es decir, requiere de la notificación regular del acto administrativo.

La notificación tiene por objeto dar a conocer a los interesados las resoluciones o acuerdos que afecten a sus derechos o intereses.

La notificación es, pues, un instrumento para que el interesado conozca el acto de la Administración, siendo deber de sus órganos la correcta realización de la misma, con lo que es obligado tenerla por inexistente ante cualquier insuficiencia, confusión o duda sobre su realización, sobre las personas a las que se practicó o sobre la fecha en la que se produjo.

Como es natural, la importancia de la notificación y la necesidad de practicarla regularmente radica en hacer posible que los interesados puedan defender sus derechos e intereses legítimos

Las garantías de la notificación están vinculadas con el principio de buena fe y con el derecho fundamental de tutela judicial efectiva.

En efecto, la notificación se configura como una garantía sometida a requisitos formales con el fin, en primer lugar, de evitar la indefensión material de los administrados.

Por consiguiente, siempre es crucial la estricta observancia de los requisitos de la notificación (i) para que la notificación surta plenos efectos, y (ii) para que, a partir de la notificación, el acto sea plenamente eficaz.

(...)

A la vista de lo dispuesto en el artículo 43 de la LPAC, es imprescindible que el interesado cuente con la posibilidad real de acceder a la notificación en ese plazo de diez días. Para ello es igualmente imprescindible que el interesado tenga conocimiento de la existencia de la notificación. Y para asegurar esa

³ [ECLI:ES:TSJBAL:2023:95](#)



posibilidad el artículo 41.6 de la LPAC ha incorporado como una más de las condiciones generales para la práctica de las notificaciones electrónicas el envío de un aviso a la dirección de correo electrónico.

A partir de ahí, y garantizada también -artículos 9.3 y 24.1 de la Constitución- la seguridad jurídica y el derecho fundamental a la no indefensión, en definitiva, la previsión de que la falta de aviso no impide que la notificación electrónica sea considerada plenamente válida ha de entenderse que comprende -únicamente- todos los casos en que la Administración actuante pueda justificar que la falta de aviso **no ha ocasionado una experiencia de indefensión al interesado.**

Por lo tanto, la notificación electrónica depositada, si no se prueba por la Administración la falta de experiencia de indefensión, no produce el efecto del rechazo tácito, con lo que su eficacia depende del envío del aviso y, lógicamente, del posterior transcurso del plazo de los diez días". (Arartekoak azpimarratu du).

Organo judicialak aipatutako ebazpenean interpretatzen duenez, jakinarazpen elektronikoak egiteko baldintza orokorretako bat da, hain zuzen ere, jakinarazpena eskura jarri izanaren abisu informatibo bat bidaltzea. Halaber, gaineratzen du ezen, jakinarazpena baliozkoa izateko, abisurik ez emateak interesdunari defentsa-gabeziako egoera bat eragin ez diola justifikatu behar dela.

Are gehiago, Kataluniako justizia Auzitegi Nagusiak, 2023ko ekainaren 13ko 2186/2023 Epaiaren⁴ bidez, interpretatu zuen administrazioak abisu informatiborik ez egiteak interesdunari benetako babesgabetasun-egoera eragin ziola, eta zera erabaki zuen: *"la retroacción del expediente a fin de que se tramite en legal forma a los efectos de resolver sobre la procedencia de la autorización (Arartekoak azpimarratu du).*

Zehazki, auzitegiak honako hau adierazi zuen:

"(...) La Administración se limitó a poner a disposición la notificación en la sede electrónica, sin remitir el aviso a que se refiere el art. 41.6 de la LPAC. En estas condiciones, procede entender que la Administración no ha desplegado la conducta exigible, en términos del principio de buena administración, para que el solicitante pudiera tener conocimiento de la comunicación. Debe considerarse, en primer lugar, que no consta que la representante designada estuviera obligada a comunicarse electrónicamente con la administración, conforme al art. 14 de la LPAC, por lo que debería haberse remitido el aviso de notificación que contempla el art. 41.6 de la LPAC, mayormente cuando existían datos desde el inicio del expediente de que estaba representando a una

⁴ [ECLI:ES:TSJCAT:2023:5684](https://ecli.es/TSJCAT:2023:5684)

persona vulnerable o dependiente. (...). Sin embargo, la propia doctrina constitucional expresada en la STC 84/2022, de 27 de junio de 2022, ha matizado que, en determinados supuestos, la falta de recepción del aviso de notificación adquiere particular relevancia, no porque ello determine per se la invalidez de las notificaciones efectuadas en la dirección electrónica habilitada, sino porque esa circunstancia impide al recurrente tener conocimiento de que se ha producido una notificación en la dirección electrónica habilitada. (...). En estas condiciones, el principio de buena administración exigiría la remisión de un aviso que permita a la representante del interesado tener conocimiento de la comunicación, lo cual en ningún momento hizo la Administración, de modo que el solicitante solo tuvo conocimiento de que se había archivado el expediente cuando la trabajadora designada como representante remitió sendos correos a la Oficina de Extranjería para ver el estado en que se encontraba el expediente (f. 42 EA), constando que se le facilitó la información en fecha 4 de febrero de 2021, cuando ya había transcurrido el plazo del recurso de reposición. En consecuencia, apreciando que la falta de remisión del aviso produjo una situación material de indefensión al demandante, procede estimar en parte el recurso de apelación, en tanto que el expediente debe tramitarse para resolver sobre si procede la concesión del permiso solicitado, acordando la retroacción del expediente a fin de que se tramite en legal forma a los efectos de resolver sobre la procedencia de la autorización”. (Arartekoak azpimarratu du).

Aurrekoarekin bukatzeko, jakinarazpenei lotutako abisu informatiborik ez ematearen eraginei, eta, azken batean, jakinarazi nahi den administrazio-egintzaren eraginkortasunari buruz azaldutako gaia interpretatzeko aipatutako organo judizialek oinarri izan duten konstituzio-doktrina aipatu behar da.

Konstituzio Auzitegiaren 84/2022 Epaiak, ekainaren 27koak⁵, baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren arteko bereizketa aipatzen du, eta ezartzen du abisurik ez bidaltzeak eragina izan dezakeela babesa izateko eskubidean, eta, zehapen-prozedura baten kasuan, akusazioaren berri izateko eskubidean.

“Pese a lo expuesto, en el presente supuesto afirmamos que la falta de recepción de los avisos de notificación adquieren particular relevancia, no porque ello determine per se la invalidez de las notificaciones efectuadas en la dirección electrónica habilitada, sino porque esa circunstancia impidió al recurrente tener conocimiento de la asignación de oficio de una dirección electrónica habilitada; de que, a través de ese medio fue requerido para que aportara la información reflejada en los antecedentes de esta resolución; y

⁵ [ECLI:ES:TC:2022:84](#)



finalmente, de que, ante la falta de respuesta por su parte, le fue incoado un procedimiento sancionador, respecto de cuya tramitación y resolución final fue desconocedor hasta la apertura de la vía de apremio”.

Konstituzio Auzitegiaren 84/2022 Epaiak azken batean adierazten du administrazioak ez zuela behar bezala jardun, ez baitzituen egiaztatu interesdunak emandako posta elektronikoko helbidearen datuak, hau da, ez zuen jardun zehapen-prozedura bat izanda zegokion diligentziarekin.

“...consideramos que la actividad desplegada por la administración no ha sido respetuosa con el derecho a la defensa y el derecho a ser informado de la acusación que se reconocen en el art. 24.2 CE. Achacar al demandante la responsabilidad de que no llegara a ser conocedor de la dirección electrónica habilitada que le fue asignada, del contenido del requerimiento y de las demás comunicaciones practicadas por vía electrónica, con fundamento en la forma en que trazó la letra “v” al escribir su dirección de correo electrónico en la declaración formulada el 16 de diciembre de 2016, supone conferir a esta circunstancia unas consecuencias manifiestamente desproporcionadas, vistos los efectos adversos producidos en el procedimiento sancionador. (...).

La concurrencia de los factores apuntados lleva a considerar que, ante lo infructuoso de las comunicaciones practicadas por vía electrónica, la administración debería haber desplegado una conducta tendente a lograr que las mismas llegaran al efectivo conocimiento del interesado, pues a ello viene obligada conforme a la síntesis doctrinal expuesta. (...). Sin embargo, no consta que aquella realizara ninguna verificación, a fin de asegurarse de que esa dirección correspondía realmente al demandante y, en consecuencia, en ella iba a poder recibir los avisos que ulteriormente le fueran remitidos”.

Azpimarratu behar da administrazio-jakinazpenen arloan jurisprudentziak berorien eraginkortasuna aztertzean kontuan izaten dituen alderdietako bat dela interesdunak zein administrazioak erakutsi duten diligentzia-maila.

Hain zuzen ere, erakunde honen ustez, jakinarazpen bat eskura jarri izanaren abisu informatiborik ez bidaltzeak agerian uzten du administrazioak ez zuela behar bezalako arretaz jokatu, ez zuelako arrazoizko ahaleginik egin ordezkariaren datuak bildu eta ezagutzeko, eta, ondorioz, administrazio onaren printzipioaren aurkako defentsa-gabezia materiala eragin zuen. Egoera hori, gainera, zehapen-prozedura baten esparruan gertatu zen; horrek babesgabetasun handiagoa eragiten du, eta, ondorioz, elkarte horren benetako babes judizialerako eskubideari eragiten dio; izan ere, elkarte horrek ezin izan zituen bere eskubide eta interes legitimoak defendatu zehapen-prozeduren izapideen esparruan, ezta ebazpenak garaiz eta legearen arabera eta ondarearen gaineko premiamendu-prozeduran hartutako betearazpen-egintzak zalantzan jarri ere. Gauzak horrela, elkarteko ordezkariak bere dirutik





ordaindu zituen ezarritako zehapenak, gainerako kideei administrazioarekiko harremanetan aurrez aurre eta elektronikoki izandako esperientzia azaltzea zaila iruditzen zitzaiolako.

7. Kexa honen testuinguruan emandako zehapen-ebazpenei dagokienez, Arartekoak adierazi nahi du, gaur egun, administrazioaren administrazio-egintzak idatziz eman behar direla, bitarteko elektronikoen bidez (APEL, [36. art.](#)).

Gauzak horrela, ebazpen horiek administrazio-dokumentu elektronikoak dira, eta, baliozkotzat jotzeko, honako baldintza hauek bete behar dituzte (APEL, [26. artikulua](#)):

“26. artikulua. Administrazio publikoek dokumentuak ematea.

1. (...).

2. Baliozkotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte administrazio-dokumentu elektronikoek:

(...)

e) Aplikatzekoa den araudiaren arabera dagozkion sinadura elektronikoak izatea. Baliozkotzat joko dira betekizun horiek betetzen dituzten eta hirugarren bati bitarteko elektronikoz helarazten zaizkion dokumentu elektronikoak”.

(Arartekoak azpimarratu du).

Dokumentu elektroniko administratiboen baliozkotasuna aintzat hartzeko, beharrezkoa da kasuan aplikatzekoa den legeriaren arabera dagokion sinadura elektronikoa izatea.

Bada, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren⁶ 216. artikulua 3. atalak honako hau ezartzen du zehapen-prozedura laburtuari dagokionez:

“(...) Zergak kudeatzen dituzten organoek hasitako zehapen-prozeduretan, 2. idatz-zatiko lehen paragrafoan aipatutako hilabeteko epea ez da izango hilabetekoa, hamabost egunekoa baizik, eta alegazioetarako epea bera izango da. Horrelakoetan, eta proposamenak ebazpen moduan ondoreak ekar ditzan soil-soilik, ebazteko eskumena duen organoaren sinadura eduki beharko du, eta gainera 2. idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatutako zehaztasunak bildu beharko ditu”. (Arartekoak azpimarratu du).

Foru-arauren 217.5 artikulua dioenez, zehapenak ezartzeko organo eskudunak izango dira:

“(...).

⁶ [6/2005 Foru Arau Orokorra](#), otsailaren 28koa, Arabako Zergei buruzkoa



d) Likidazioa egiteko eskumena duen organoa, edo zehapen-prozedura hastea proposatu duen administrazio-unitatearen gainetik hurrengo dagoen organoa, gainerako kasuetan”.

Kasu honetan, zuzeneko zergen zerbitzuak ezarri zituen zehapenak. Beraz, aipatutako ebazpenak dagokion organoaren titularrak edo enplegatu publikoak sinatu behar zituen, arestian aipatutako zerga-araudian ezarritakoaren arabera, eta SPAJLren 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

“43. artikulua. Administrazio publikoetako langileen sinadura elektronikoa. 1. Lege honen 38., 41. eta 42. artikuluek xedatua deusetan galarazi gabe, administrazio publiko, organo, erakunde publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten jarduketak, bitarteko elektronikoak erabiltzen dituenean, sinadura elektronikoa beharko du, organoko titularrarena edo enplegatu publikoarena. (Arartekoak azpimarratu du).

Esandakoa kontuan hartuz, formatu elektronikoan emandako administrazio-dokumentuak (zehapen-ebazpenak, kasu honetan) zehapen-ahalmena duen administrazio-unitateko organoaren titularrak edo enplegatu publikoak sinatu behar zituen elektronikoki. Elkarteari ezarritako 2022/3993 eta 2023/1156 zehapen-ebazpenek, ordea, ez dute sinadura elektronikorik.

Horren ordez, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arartekoari emandako erantzunean berretsi zuenez, zuzeneko zergen zerbitzuko burutzaren eskuzko sinadura digitalizatua dute dokumentu horiek.

Egia da ebazpenek Aldundiaren zigilu elektronikoa ere badutela, baina zigilu elektronikoek administrazioa identifikatzeko balio dute (SPAJLren [40. artikulua](#)) edo, hala badagokio, jarduketa automatizatuak sinatzeko (SPAJLren [42. artikulua](#)), eta horiek ez datoz bat hizpide dugun kasuarekin.

Beraz, zehapen-ebazpenei dagozkien dokumentu elektronikoetan ez zen ebazteko eskumena duen organoaren titularraren edo enplegatu publikoaren sinadura elektronikoa kualifikatua gehitu, hau da, sinadura elektronikoak sortzeko gailu kualifikatu baten bidez sortutako sinadura elektronikoa aurreratua, horretarako egiaztatutako konfiantzazko zerbitzu-emaile batek (hala nola, Izenpe⁷) emandako ziurtagiria erabiliz.

⁷ https://www.izenpe.eus/webize00-cnadministracion/eu/contenidos/informacion/certificado_pep/eu_def/index.shtml



lido horretan, Arartekoak uste du administrazioak administrazio-prozeduraren baldintzak bete behar dituela administrazio-dokumentuak idatziz eta bitarteko elektronikoen bidez ematen dituenean. Gauzak horrela, badirudi gomendagarria dela administrazio horretako langileek erabili behar dituzten sinadura elektronikoko sistemak zehaztea, APELen [43.2 artikuluan](#) xedatutakoaren arabera, eta sinadura elektronikoko politikak onartzeko aukerari buruz hausnartzea, elkarreragingarritasunerako eskema nazionalen⁸ ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari:

GOMENDIOA

- Elkarteari ezarritako zehapenak indarrik gabe uztea eta kobratutakoa itzultzea, foru-administrazioak ez baitzuen jakinarazpenak eskura jarri izanaren abisurik bidali, eta, beraz, ez zituen bete sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzak.
- Jarraibide argiak ematea eta pertsona juridikoen betebeharrak oinarrizko araudira egokitzea, betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez bete ditzaten errazteko.
- Enplegatu publikoek erabili beharreko sinadura elektronikoko sistemak zehaztea, administrazio-dokumentuek dagozkien sinadura elektronikoak izan ditzaten, aplikatu beharreko sektoreko legeria betez.

⁸ [4/2010 Errege Dekretua](#), urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoen eremuan arautzen duena.